



Olabezubiaga

etxebizitza

Aldacrak: Zubiaga
Ahozkoa: Subidxa

“... la casería titulada Olabezubiaga, en el termino de la anteiglesia de Berriz, en el barrio de Ocango... que ocupa una superficie de noventa y cuatro estados cuadrados equivalentes a tres areas cincuenta y ocho centiareas...”
DJE 4/230 or. (1880)



43° 10' 31"

2° 33' 59"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Olabe auzoko baserriak modura, honako honek ere izen konposatua du. Dokumentazioan aldaketarik gabe erregistratu da mendeetan. XVII. mendean aurkitzen ditugu lehen aipuak, *Olave Zubiaga* (1683, BAHF, A2263/32), eta hortik abiatuta gaur arte izen bera mantendu izan da, *Olabezubiaga* (1865, DJE, 1/ 152. or.). Auzoan, beste hainbat lekuetan gertatzen den moduan, bigarren zatia baino ez dute erabiltzen, *Subidxa*, horrekin nahiko izaten da Olabe-ko *Zubiaga* edo *Olabezubiaga* baserria identifikatzeko.

Bateratuta dauden etxe bik osatutakoa da gaur egun: bata, aurrekoa, 1800 inguruko estiloan jasoa, eta bestea, ostera, tradizioan oinarritutako estilo berrian. Zaharragoan goranzko

tendentzia da nagusi. Baoak hiru ardatzetan antolatzen dira, eta itxura simetrikoa badu ere, ezkerraldea estuagoa da. Erdiko ardatza indartzen dute sarrerako ateak, gaineko leiho luzeak eta ganbarako balkoi zabal bakarrak. Jatorrian etxea luzituta egongo zen, gaur egun ganbara aldean ikusten den moduan, eta harlandua erabili zuten kantalak eta bao guztiak indartzeko. Berri-berria da atzean itsatsita dagoen etxea. Horretan ere erdialdea da nagusi, XVII. mendeko etxeetan legez, zura-imitaziozko egitura-rekin egina. Alboetan, horma estaltzeko harria erabiltzen den bitartean, egurra erabili dute baoak egiteko. Aurrekoan ez bezala, honetan horizontaltasuna da gidari.

toponimia

Sarritan esan dugun legez Bizkaian oso arrunta da etxe izenetan lehenengo osagaia auzoaren izena izatea, hemen bezala, eta bigarrena etxearena berarena, Zubiaga kasu honetan. Zubiaga leku izena nahiko arrunta da nahiz eta lehen zubiak orain bezain arruntak ez izan eraikitzea garestia zelako.